

BULARREKO MINBIZIA GOIZ DETEKTATZEKO PROGRAMA (BMGDP) JARDUERAREN ANTOLAMENDUA, XEDE-BIZTANLERIA ETA BALIABIDEAK

2021eko abendua

BMGDP DATU OROKORRAK

Hasiera-data: 1995eko azaroan Araban eta Debagoiengan hasi zen eta 1997an zehar EAE osora hedatu zen.

Erabili beharreko teknika eta aldizkakotasuna: Aldebiko mamografia, proiektio bikoitzekoa (albo-erdialdeko zeharra eta kranio kaudala), bi urterik behin.

Xede-populazioa: Hasieran 50-64 urte bitarteko EAeko emakume guztiei zuzendua, 2006an, gehieneko adina 69 urtera zabaltzea onartu zen. 2011n, Programak 40-49 urte bitartekoak hartu zituen barne, lehen mailako senideen artean bularreko minbizi-aurrekaririk izanez gero. Kanpoan geratzen dira soilik bularreko minbizia (BM) diagnostikatuta dutenak.

JARDUERAREN ANTOLAMENDUA

Jardueraren plangintza (kudeaketa-unitatea)

Hitzorduak emateko, emakumeak osasun-eremutan multzokatzen dira, beren Detekzio Unitateen arabera, emakume guztiei bi urtez behin hitzordua eman ahal izateko moduan (hori programaren itzuli bat da). Hitzorduak emateko ordena helbidearen arabera da (udalerrria, kalea eta atariko zenbakia). Oro har, denbora-tarte batean jaiotako emakumeak aldi berean sartzen dira programan eta itzuli batean, beren osasun-eremua tokatzen denean bidaltzen zaie gonbidapena.

Mamografiak egiteko orduak ematea (Kudeaketa-Unitatea)

A) **hitzordu-gutunaren** bidez egiten da, hitzorduaren lekua, data eta ordua adieraziz, Programaren aholku batzuk eta harremanetarako telefono zenbakia barne, eta b) **gonbidapen-sms edo gutun** bidez. Osasun gune bateko hitzorduak amaitzean, eta lehen hitzordura joaterik izan ez zuten emakumeak artatzeko, hitzordua eskatzeko gonbidapena bidaltzen da.

Mamografiak egitea (Detekzio-Unitatea)

Aldez aurretik Inkesta Epidemiologikoko datuak jasotzen dira. Behin mamografiak eginda, emakumeari esaten zaio zenbait kasutan proba erradiologiko osagarriak egin behar izaten direla.

Proba erradiologiko osagarriak (detekzio-unitatea)

Proba erradiologiko osagarriak egin behar badira, emakumeari telefono bidez ematen zaio ordua, mamografia-unitatetik, astebeteko epean gutxi gorabehera.

Txosten-gutuna bidaltzea (Kudeaketa-Unitatea)

Probak normalak badira (kasuen %99), postaz txosten-gutun bat bidaltzen zaio, normalean, esanez bi urteren buruan proba berriz egitea komeni dela (kasu batzuetan, 6 edo 12 hilabetera) eta Programa bera arduratuko dela ordua emateaz.

Erreferentziazko Ospitalera bideratzea (Detekzio-Balorazio Unitateak)

Mamografien irakurketa-diagnostikoa eta beste proba erradiologiko batzuk egin ondoren susmoren bat balego (kasuen % 1), emakumeari esaten zaio aztertzen jarraitu beharra dagoela erreferentziako ospitalean, eta ohar bat ematen zaio, hitzordua zer egunetan, zer ordutan eta non izango duen adierazteko. Hitzordu hori programatik bertatik tramitatzen da Erreferentziako Ospitalera, eta bertan egingo da diagnostikoaren prozesua; baita, beharrezkoa bada, detektatutako lesioen tratamendua eta segimendua ere.

Programako bi itzuliren arteko denbora tartea eta Programako bajak

Bi itzuliren arteko tartean emakumeak bularrarekin zerikusia duen edozein arazo izanez gero edo baja emateko arrazoiren bat sortuz gero, Programakoekin harremanetan jartzea gomendatzen da. Programan baja emateko arrazoiak dira bularreko minbizia diagnostikatzea, egoitza EAetik kanpora aldatzea edo heriotza.

BULARREKO MINBIZI-AURREKARIAK FAMILIAN 40-49 URTEKO EMAKUMEEN ARTEAN

BM Familiako aurrekariak (FA) jakinaraztea 40-49 urteko emakumeen artean (kudeaketa-unitatea)

40 urte betetzen dituzten emakumeei informazio-gutun bat bidaltzen zaie Programaren liburuxkarekin batera. Bertan jakinarazten zaie nola jar daitezkeen harremanetan BMGDPrekin bularreko minbizia izan duten lehen mailako senideak badituzte (gurasoak, nebak, ahizpak, seme-alabak).

BMGDPan sartzea (1. Mailako BM FA dituzten emakumeak)

Aurrekariak baieztatu ondoren, 2 hilabeteko epean hitzordu bat programatuko da, baldin eta urtebete baino gehiago igaro bada azken mamografia egin ziotenetik. Emakume hori Programan sartuta geratuko da eta dagokion maiztasunarekin emango zaio hitzordua, 50 urtetik gorako emakumeei bezala.

BMGDP-AREN BALIABIDEAK

11 Detekzio-unitate, mamografiak eta proba erradiologiko osagarriak egiteko; 7 Balorazio-unitate, irakurketa diagnostikoa egiteko; eta 6 Erreferentziazko ospitale, detektatutako lesioak berretsi eta tratamendua eta jarraipena egiteko. Gainera, Kudeaketa-unitate bat dago, 3 egoitza dituen hitzorduak emateko, txostenak jaulkitzeko eta programa ebaluatzeko, baita programa koordinatzeko ere.

ESla	DETEKZIO UNITATEA	BALORAZIO UNITATEA	ERREFERENTZIAZKO OSPITALEA
ARABA ESI ARABAKO ERRIOXA ESI	SANTIAGO O.	SANTIAGO O.	TXAGORRITXU O.
DEBAGOIENA ESI	ALTO DEBA O.	SANTIAGO O.	TXAGORRITXU O.
⁽¹⁾ TOLOSALDEA ESI	^(1,2,3,4) ONKO A	ONKOLOGIKOA	ONKOLOGIKOA
⁽²⁾ BIDASOA ESI			
⁽³⁾ DONOSTIALDEA ESI			
⁽⁴⁾ GOIERRI-ALTO UROLA ESI	ONKO B	ONKOLOGIKOA	DONOSTIA O.
⁽⁵⁾ DEBABARRENA ESI	^(3,4,5)		
BARRUALDE-GALDAKAO ESI	GALDAKAO O. GERNIKA O.	GALDAKAO O.	GALDAKAO O. BASURTU O*
BARAKALDO-SESTAO ESI	ZABALLA	ZABALLA	SAN ELOY O. GURUTZETA O.*
BILBAO-BASURTO ESI	AREILZA DR.	AREILZA DR.	BASURTO O.
EZKER.-ENKART.-GURUTZETA ESI	REPELEGA O.	REPELEGA	GURUTZETA O.
URIBE ESI	LAS ARENAS URDULIZ O.	REPELEGA	GURUTZETA O.

* Tratamendu osagarri jakin batzuetan.